

# ARTO ZURIKETA

*Arto-zuriketa, arto-zuriketa  
ganbara dago artoz beteta,  
arto-zuriketa, arto-zuriketa  
jarri lanean arreta.*

Eta barre egiten zuten taldean, Kattalinek eta auzoko Mariak eta Ixabelek.

Igartubeitiko ganbaran elkartzen ziren arto-zuriketa lanetarako. Lanerako bai, baina jolaserako eta solaserako tartea ere izaten zen hura. Udazkeneko haizeak kraska eta kraska egiten zuen egurrezko leihoetan, kraska eta kraska, berak ere barrura sartu eta entzun nahi zituela hiru emakume gazteen irriak eta algarak. Kraska eta kraska egiten zuen haizeak, zarta eta zarta.

- Zer esan dizu Santik, Ixabel?
- Kattalin! Sssssssssssss zer nahi duzu haizeak lau haizetara kontatzea? Ez al duzu entzuten, kras eta kras, hortxe dabil barrura sartu nahian, teman.
- Ze esan dizu Santik, Ixabel? (baxuago)
- Egunen batean nirekin dantza egin nahiko lukeela.
- Baina, dantza-dantza?
- Segi lanean, Maria!
- Baina, dantza-dantza?
- Bai, Maria. Dantza-dantza.
- Eta zuk zer esan diozu?
- Ui, nik ezer ez. Irri ttiki bat eta aurrera.
- Ixabel! Hori asko esatea da!
- Sssssssssssssssssssssssss

Eta algaraka pasatzen zituzten orduak eta orduak. Arto aleak bildu eta bildu.  
Kontuak eta kantuak elkarri janez. Halako batean kurrinka hotsa entzun zuten  
eskilaretan gora. Mantal gainak astindu, zimurrak laxatu, bizkarrak tentetu eta  
aurpegiera seriosuta lanean jarraitu zuten, beren baitarako kantatuz:

*Arto-zuriketa, arto-zuriketa  
ganbara dago artoz beteta,  
arto-zuriketa, arto-zuriketa  
jarri lanean arreta.*